



---

## A K T A

Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK** egindako **ohiko bilkurarena,**

**2020ko azaroaren 26koa**

**Amurrio Antzokian, 13:40ak direnean,** jarraian zerrendatzen diren batzarkideak elkartu dira **ezohiko bilkura egiteko, lehen deialdian.** Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeko **presidente Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua, eta Gianfranco Ghiro Alonso jauna, behean izenpetzen duena, aritu da behin-behineko idazkari-lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzarkideak bertaratu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA (EAJ-PNV)  
Gentza ALAMILLO UDAETA (EAJ-PNV)  
Ander AÑIBARRO MAESTRE (EAJ-PNV)  
Andoni RODRÍGUEZ ORÚE (EAJ-PNV)  
Iñigo PINEDO VADILLO (EAJ-PNV)  
Montserrat ANGULO SOLLOA (EAJ-PNV)  
Txerra MOLINUEVO LAÑA (EAJ-PNV)  
Nuria LÓPEZ LUMBRERAS (EAJ-PNV)  
Maite CORTÁZAR AGÜERA (EAJ-PNV)  
Alberto ARTETXE VICENTE (EAJ-PNV)  
Ixone SARATXAGA IBARRETXE (EAJ-PNV)  
Eva MARQUÍNEZ BLANCO (EAJ-PNV)  
Juan José ESCUZA DEL CAMPO (EAJ-PNV)  
Joseba VIVANCO RETES (EH BILDU)  
Nagore GOMARA PICAZA (EH BILDU)  
Irene ITURBE ERRASTI (EH BILDU)  
Maitane SALUTREGI GARDEAZABAL (EH BILDU)  
Iñaki IBARLUZEA ORTUETA (EH BILDU)  
Jon BERGANZA URRUELA (EH BILDU)  
Karmele POBLACIÓN MARTÍNEZ (EH BILDU)  
José María GUTIÉRREZ ÁNGULO (EH BILDU)  
Álvaro BARRIOS MEDINA (OMNIA)  
Nerea GONZÁLEZ GARCÍA (OMNIA)  
David ROMERO CAMPOS (PSE-EE)  
María Dolores MURIEL AROCA (PSE-EE)  
Sergio TATO EGUREN (OKONDO AURRERA)  
Iratxe PARRO UZQUIANO (AIARA BATUZ)



---

Ez dira bertaratu eta ez etortzea justifikatu dute honako jaun-andre batzarkide hauek:

Naiara OTAOLA GONZÁLEZ (EH BILDU)  
Arkaitz SAN JOSÉ MARTÍNEZ (EH BILDU)

Marquinez Blanco andrea eta Escuza del Campo jauna bilkuran sartu dira, 13:46an, 2. puntua eztabaidatzen ari zirenean. Premiaz aurkeztutako lehen mozioaren eztabaidan, 14:32an, bost minutuko etenaldia egin denean, Angulo Solloa andreak, Vivanco Retes jaunak eta Berla Urruela jaunak bilkura utzi dute.

**Kuadrillako presidente andreak, lehen deialdian, 13:40an**, osoko bilkura irekita dagoela adierazi du, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Halaber, agindu du ezarritako gai-zerrendari jarraituko diotela.

## **1.- LAUDIOKO UDALAK BATZARKIDE BERRIA IZENDATZEA, EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEA**

Urriaren 29an, jakinarazpena jaso zen, Laudioko Udalak egindako osoko bilkuran José María GUTIÉRREZ ÁNGULO batzarkide berri izendatu zela, EH BILDU Talde Politiko Batzarkideko Lamia ARCAS NOGALES andreak utzitako kargua betetzeko. Azaroaren 26an bertan jaso zen Kuadrillako erregistroan Amurrioko Udalak 26an egindako osoko bilkuraren jakinarazpena. Bertan, EAJ-PNV Talde Politikoak Ixone SARATXAGA IBARRETXE batzarkide berri izendatu zen Josune IRABIEN MARIGORTA ordezkatzeko.

Presidente andreak egiaztagiriak aurkezteko deia egin die bieiei.

Egiaztagiriak aurkeztu eta egiaztatu dira, Kuadrillako Foru Arauaren 21.3 artikulua araberan, eta Kuadrillako Batzarrean egiaztatu ondoren, eginkizunak betetzen hasteko baldintza betetzen da.

## **2.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AZKEN BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA**

Deialdiarekin egindako azken bilkuraren akta erantsi da, eta Presidentetzak galdetu du ea alegaziorik egin nahi zaion.



**Parro Uzquiano andreak** (AIARA BATUZ talde politiko batzarkideko bozeramailea) azaldu du aurreko bilkuraren aktaren aurka bozkatuko duela, uste baitu nahiko laburbilduta dagoela, eta, gainera, 7. puntuan (zirriborroaren 31. orria) interpretatzen du Aiara Batuz taldeak kuadrillako teknikariei leporatzen diela salaketa horiek egitea, eta hori ez da izan eta ez da Aiara Batuz taldearen asmoa. Bere iritziz, gaizki transkribatuta daude Parro Uzquiano andreare hitzak, eta argitu du presidenteari leporatzen diola Batzarrari deitu ez izana, eta teknikariek ezin izan dietela batzarkideei horren berri eman, ez delako deialdirik egin, eta, beraz, ez dela haien errua jakinarazi ez izana.

**González García andreak** (OMNIA talde politiko batzarkideko kidea) azaldu du bere taldeak aurreko bilkuraren aktaren aurka bozkatuko duela, ulertzen duelako eta ados dagoelako Parro Uzquiano andreak esandakoarekin. Bere ustez, 2. puntua nahiko laburbilduta dago eta aktaren aurka egotea eragiten duten ideia batzuk nabarmendu ditu. Aurreko Kuadrillako Batzarrean egin zen azalpenean ez da kontuan hartu taldeetako bozeramaileak Tokiko Gobernu Batzordera gonbidatuta daudela egia den arren. Egia da ez dutela inolako eskubiderik ideiak aurkezteko, beren lanpostuetara huts egiteko Tokiko Gobernu Batzordera joateko, eta bertako kideek dituzten beste eskubide batzuk ere ez dituztela. OMNIA taldeak Batzarraren egun berean aurkeztutako eta hura sartzea gaitzetsitako mozioari dagokionez, presidente andreak erantzun zuen hurrengo Kuadrillako Batzarrera eramango zela.

Alegazio gehiagorik egin ez denez, bozketa egin da eta, gehiengoz, aldeko 23 botorekin (EAJ-PNVren 13 boto, EH BILDUren 8 boto eta SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAKen 2 boto) eta aurkako 4 botorekin (OMNIAren 2 boto, OKONDO AURRERAREN 1 boto eta AIARA BATUZen 1 boto) ADOSTU DA 2020ko uztailaren 17an egindako akta onestea.

### **3.- 2019ko KONTU OROKORRA ONESTEA**

Presidente andreak jakinarazi du 2019ko Kontu Orokorra aurkeztu dela hori onesteko xedez, saileko Informazio Batzordearen aldeko irizpenarekin. Bilkurarako deialdiarekin batera, eranskinak atxiki dira. **II. ERANSKINETIK V. ERANSKINERA**, Kuadrillaren kontu orokorrari buruzko dokumentazioa eta izapideak jasotzen dira.

Alegazio gehiagorik egin ez denez, bozketa egin da eta, gehiengoz, aldeko 17 botorekin (EAJ-PNVren 13 boto, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAKen 2 boto, OKONDO AURRERAREN 1 boto eta AIARA BATUZen 1 boto) eta 10 abstentziorekin (EH BILDUren 8 eta OMNIAren 2) ADOSTU DA honako ERABAKI hau hartzea:



---

KUADRILLAKO 2019ko KONTU OROKORRAK onesteko prozedurarako ezarritako izapideak bete dira Arabako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauaren 63. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**IKUSI DA** 2019 ekitaldiko Kontu Orokorrak Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 3ko 56/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako toki-erakundearen kontabilitate-jarraibidean jasotako dokumentuak biltzen dituela.

**IKUSI DA** Kuadrillako 2019ko Kontu Orokorra aipatutako 3/2004 Foru Arauaren eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenen arabera egin dela. Izapide hau bete da:

**LEHENENGOA.-** Kontu orokorra onesteko espedienteak izapide hauek bete ditu:

- 1.- Saileko Informazio Batzordearen txostena.
- 2.- Kontu orokorra eta Kontu Batzordearen txostena jendaurrean jartzea 15 eguneko epean, ALHAOn argitaratua ekainaren 29an, 72. zenbakian.
- 3.- Erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik egon ez izanaren ziurtagiria, 2002ko uztailaren 22koa.

**BIGARRENA.-** Azaldutakoa ikusita, onestea Aiarako Kuadrillako 2019ko Kontu Orokorra.

**HIRUGARRENA.-** Kontu Orokorra onetsi ondoren, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren esku geratuko da, berariazko araudian ezarritako moduan.

**LAUGARRRENA.-** Era berean, kontu orokorrak ondarearen altei, bajei eta mugimenduei buruzko datu guztiak jasotzen ditu, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 31. artikuluan aipatzen den inbentarioa zuzendu ahal izateko.

#### **4.- 2020ko AURREKONTUA ONESTEA**

**Presidente andreak** jakinarazi du 2021eko aurrekontuaren aurreproiektua eztabaidatu zela Informazio Batzordeak 2020ko azaroaren 13an egindako bilkuran. Batzordearen aurretik, aurrekontuaren aurreproiektua azaldu zitzaizen batzarkideei, azaroaren 9an bideokonferentziaz egindako bilkuran.

Azalpena bukatu ostean, presidente andreak taldeei eman die hitza.

**González García andreak** (OMNIA talde politiko batzarkideko kidea) azaldu du bere taldea abstenitu egingo dela eta bere erabakia justifikatu nahi duela. Lehenik eta behin, badaki tarte txikia dagoela aurrekontuaren aurreproiektua idazteko orduan, gastu gehienak langileenak eta zerbitzu mankomunatuak baitira. Aurkezpena irekiagoa izatea gustatu zaio, alde aurreko bilkurarekin, taldeei proposamenak aurkezteko epe bat eman zaie. Espero du aurten LZren aldaketa egin ahal izatea, ondorengo EPEarekin.



Uste dute garrantzitsua dela gastuak berdintasunaren sailean mantentzea. Faltan sumatzen du beste erakunde batzuekin lankidetzaz handiagoa izatea laguntzei, dirulaguntzei, hitzarmenei eta abarrei buruzko informazioa izateko orduan, aurrekontuak egiteko erabiltzen diren datuak zehatzagoak izan daitezken eta haiekin fidagarritasun handiagoa izan dezagun; horrela, udal-aurrekontuek arazo gutxiago izango dituzte Kuadrillari egingo dizkioten ekarpenen aurreikuspenarekin. Pozik daude aurreproiektuan islatutako motibazio eta helburuekin, baina presidentek lanaldi erdiarekin egindako lanaren zain egongo dira. Hala ere, abstenitu egin dira Tokiko Gobernu Batzarreko kide ez izateagatik, bertan hartzen baitira Kuadrillako erabaki gehienak, eta erabaki horiek ez dira gainerako taldeekin adosten.

**Vivanco Retes jaunak** (EH BILDU talde politiko batzarkideko bozeramailea) azaldu du, bere ustez, Aiarako Kuadrillak egiten duen osoko bilkurarik garrantzitsuenean gaude, aurrekontuak onesten diren osoko bilkura delako. Bere taldearen botoa abstentzioa izango dela iragarri du. Aurrekontuak kontinuitate dira, eta Kuadrilla zerbitzu-kudeatzaile hutsa da. Aiarako Kuadrilla zer den eta zer izan behar duen aztertze eta hausnartzeko eskatu du. Aurrekontuen aurreproiektua aztertze tarte txikia eman da, bertan gastu arrunta handitzen da, eta politika kontinuitate da, eta agian ez da izango 2021eko aurrekontuetan behar dena. Ogasun Batzordean teknikariak aurkezten ditu aurrekontuak, baina ulertzen da aurrekontuak Kuadrillako politikaren isla direla eta alderdi politikoak aurkeztu eta defendatu behar dituela. 2020ko aurrekontuari dagokionez, gauzatu ez diren bi partida garrantzitsu daude: lanpostuen balorazioa eta genero-ikuspegia txertatzeko plan sektoriala. Presidente andreak, aurrekontuen aurreproiektuari dagokionez, erantzun dio, esan bezala, batzarraren aurreko bilkura egin zela eta lehenengo batzarrean eman zela irizpena, baina batzarrari proposatu zitzaion beharrezkotzat joz gero batzar gehiago egin zitezkeela eta lehenengoan ez zela irizpenik emango. 2020ko aurrekontuan garatu gabeko partidei dagokienez, pandemiak eragindako urte berezia zenez, Kuadrillan beste lehentasun batzuk zeudela uste izan zen.

**Alamillo Udatea jaunak** (EAJ-PNV talde politiko batzarkideko bozeramailea) azaldu du bere taldearen botoa aldekoa izango dela. Batzarkideen eta presidentearen lana eskertu du. Aipatu du aurrekontu kontinuitate txarrak diruditela, baina egungo egoera ikusita, ona dela Kuadrillako ildo nagusiei eustea; positiboa da, halaber, lehenbailehen onetsita izatea. Espero du 2021ean Kuadrillako LZ berriari ekin ahal izatea, Kuadrilla berarentzat eta hura osatzen duten udalentsat oso garrantzitsua baita. 2021. urtea Kuadrilla osatzen duten guztiak, langileak, batzarkideak eta abar gustura egongo diren urtea izatea espero du.

Alegazio gehiagorik egin ez denez, bozketa egin da eta, gehiengoz, aldeko 15 botorekin (EAJ-PNVren 13 boto, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAKen 2 boto) eta 12 abstentziorekin (EH BILDUren 8 boto, OMNIAREN 2 boto, OKONDO AURRERAREN 1 boto eta AIARA BATUZEN 1 boto) ADOSTU DA honako ERABAKI hau hartzea:

**IKUSI DA** 2021 ekitaldirako aurrekontuaren aurreproiektua.

**LEHENENGOA.-** 2021eko aurrekontuari hasierako onespina ematea, gastuen eta diru-sarreraren zenbatekoa 4.140.329,48 eurokoa izanik.



**BIGARRENA.-** Presidente andreari eskatzea egin beharreko izapideak egin ditzala, behin betiko onesteko.

## **5.- AZAROAREN 25eko ERAKUNDE ADIERAZPENA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA**

**Presidente andreak** jakinarazi du GIZARTE GAIAK, BERDINTASUNA ETA KULTURA Informazio Batzordeak azaroaren 11n egindako bilkuran, aho batez onetsi zuela azaroaren 25eko erakunde adierazpenari buruzko IRIZPENA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEARI BURUZKOA:

### **GIZARTE GAIAK, BERDINTASUNA ETA KULTURA INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA. AIARAKO KUADRILLA**

Aiarako Kuadrillako GIZARTE GAIAK, BERDINTASUNA ETA KULTURA INFORMAZIO BATZORDEAN, 2020ko azaroaren 11ko ezohiko bilkuran, 14:00etan, honako proposamena onartu da aho batez:

### **AZAROAREN 25erako ERAKUNDE ADIERAZPENA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA DELA ETA**

Azaroaren 25a “Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna” dela-eta, Aiarako Kuadrillak bere egiten du gure herriek, indarkeria matxistarik gabeko gune gisa eraikitzeko ardura. Eta lehentasunezko konpromiso politikoa berresten du indarkeria mota horren adierazpen guztien kontrako borrokan, egiturazko jatorriaren eta betikitzen duen normalizazioan eraginez, orden sozial patriarkala ezinbestez aldatzeko eta,

### **DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE ASUNTOS SOCIALES, IGUALDAD Y CULTURA DE LA CUADRILLA DE AYALA**

En la sesión extraordinaria celebrada por la COMISIÓN INFORMATIVA DE ASUNTOS SOCIALES, IGUALDAD Y CULTURA de la Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrilla el día 11 de noviembre de 2020, a las 14:00h, se ha aprobado por unanimidad la siguiente propuesta:

### **DECLARACIÓN PARA EL 25N CON MOTIVO DEL DÍA POR LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES**

Con motivo del 25 de noviembre, "Día internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres", la Cuadrilla de Ayala asume la responsabilidad de construir nuestros pueblos como espacios libres de violencia machista. Y reafirma su compromiso político prioritario en la lucha contra todas las manifestaciones de este tipo de violencia, incidiendo en su origen estructural y en la normalización que la perpetúa, con el objetivo de cambiar



emakumeak libre biziko diren justizian eta berdintasunean oinarritutako elkarbizitza eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ereduak errealitate bihurtzeko xedez.

COVID-19ren pandemiak gure bizitza eta komunitateak kolokan jarri ditu, pertsona guztien osasunari, segurtasunari, ongizateari eta komunitate-bizitzari erronka handia jarritz. Mundua ulertzeko eta bertan egoteko dugun modua aldatzen ari da. Konfinamenduak, mugimendu-murrizketek eta harreman-mugek agerian utzi dituzte, beren gordintasun osoz, indarkeria matxista mota desberdinei aurre egiten ari diren emakumeen egoera oso ahulak.

Krisi-testuinguru guztiak, pandemia honekin gertatzen den bezala, indarkeria matxista, ugaltzeko, biderkatzeko eta ugaritzeko haztegi bat dira. Indarkeria hori botere-harreman desorekatuen eta emakumeen aurkako diskriminazioaren adierazpen bat da, eta pairatzen ari garen krisi sanitario, sozial eta ekonomikoaren ondorioz larriagotu egiten dira.

Pandemiak sortutako egoeran, arreta jarri behar dugu beren etxeetan, lanetan eta bizi-espazioetan bizirik irauteagatik indarkeriari aurre egiten ari diren emakume eta neskegan. Gizartearen aitorten eta elkartasun osoa merezi dute. Testuinguru horretan, isolamendua, babesgabetasuna eta ikusezintasuna saihesteko baldintza egokiak sortzeko lanean jarraitu behar dugu. Horregatik, aurtan Euskal Herrian hildako lau emakumeak gogoratu nahi ditugu bereziki gaur, bi EAEn eta beste bi Iparraldean. Errealitate mingarri horrek gizarte gisa interpelatu egiten gaitu, lanean jarraitzeko eta mobilizatzen konpromisoa hartzeko, horrela gerta ez dadin.

irremediamente el orden social patriarcal y hacer realidad una convivencia basada en la justicia y la igualdad en la que las mujeres vivan libres y modelos de relación entre mujeres y hombres.

La pandemia de la COVID-19 ha puesto nuestras vidas y comunidades en jaque, desafiando seriamente la salud, la seguridad y el bienestar de todas las personas y la vida en comunidad. Está cambiando nuestra forma de entender y estar en el mundo. El confinamiento, las restricciones de movimiento y la limitación de las relaciones han destapado con toda su crudeza las situaciones de extrema vulnerabilidad de las mujeres que están enfrentando violencia machista en sus diferentes formas.

Todos los contextos de crisis, como ocurre con esta pandemia, son un caldo de cultivo para que la violencia machista proliferen, se multipliquen y se reproduzcan. Esta violencia es una manifestación de las desiguales relaciones de poder y de la discriminación contra las mujeres, que se ven agravadas por las crisis sanitaria, social y económica que estamos viviendo.

En la situación generada por la pandemia, debemos poner el foco en las mujeres y niñas que enfrentan violencia en sus hogares, en sus trabajos, en sus espacios de vida están resistiendo por su supervivencia. En este contexto debemos seguir trabajando para generar las condiciones adecuadas para evitar su aislamiento, desprotección e invisibilidad. Se merecen todo el reconocimiento y solidaridad de la sociedad. Por eso queremos recordar especialmente hoy a las cuatro mujeres asesinadas este año en Euskal Herria, dos en la CAPV y otras dos en Iparralde. Esta dolorosa realidad nos interpela como sociedad y nos compromete a seguir trabajando y movilizarnos para que no siga ocurriendo.



Hala ere, horrekin EZ DA NAHIKOA. Konpromiso politiko argia behar dugu, gizarteak erakundeei eskatzen baitie emakumeen aurkako indarkeria matxista lehentasun politiko bihur dezatela. Inoiz ez bezala zerbitzu publikoen eta erakundeen laguntza eta baliabide guztiak izateko, emakumeei beren askapen-, berreskuratze-, ahalduntze- eta autonomia-prozesuetan laguntzeko garaia da. Ezinbestekoa da emakumeek duintasunez eta segurtasunez bizitzea merezi duen bizitzarako oinarritzko eskubidea berreskura dezaten. Behar-beharrezko baldintza da, gainera, gure herriak eta hiriak bizikidetzan seguru, solidario eta berdinzalerako gune gisa indartu daitezen.

Herritarrengandik hurbil gaudenez, euskal udalok ahotsa jarri nahi diogu gure udalerriek emakumeekiko eta indarkeria matxistaren beste biktima batzuekiko duten elkertasunari. Indarkeria matxistaren pandemiak lehentasuna izaten jarraitu behar du, eta, beraz, prebentzioa lantzen jarraitzeko, arreta egungo egoerara egokitzeko eta erreparazioa alde batera ez uzteko beharrezkoak diren baliabide guztiak konprometitu behar ditugu. Arazoaren sustraian eragina izango duten ekimen integralak abiaraziz bakarrik lortu ahalko da arazoa desagerrarazten aurrera egitea.

Gure erantzukizuna gure gain hartzen dugu, erakunde, kolektibo feminista eta emakumeen kolektibo, aditu eta gizarteko eragile guztiekin lankidetzan eta koordinatuta. Horregatik guztiagatik, Aiarako Kuadrillak konpromiso hau hartzen du, betiere, kontuan izanda Kuadrillak indarkeria matxistaren aurkako Protokoloa eta Plana dituela eta Jarraipen Mahaietan gauzatuko dela konpromisoa:

Sin embargo, con esto NO BASTA. Debemos estar a la altura con un compromiso político inequívoco, porque la sociedad exige a las instituciones que hagan de la violencia machista contra las mujeres una prioridad política. Es tiempo como nunca de disponer todo el apoyo y recursos de los servicios públicos y de las instituciones, para apoyar a las mujeres en sus procesos de liberación, recuperación, empoderamiento y autonomía. Es imprescindible para que las mujeres recuperen el derecho fundamental a una vida que merezca la pena ser vivida, con dignidad y seguridad. Es condición necesaria, además, para que nuestros pueblos y ciudades se fortalezcan como espacios de convivencia segura, solidaria e igualitaria.

Desde nuestra cercanía a la ciudadanía los Ayuntamientos y Cuadrillas vascas queremos poner voz a la solidaridad de nuestros municipios con las mujeres y otras víctimas de la violencia machista. La pandemia de violencia machista debe seguir siendo una prioridad, por lo que debemos comprometer todos los recursos necesarios para seguir trabajando en la prevención, adecuar la atención a la situación actual y no abandonar la reparación. Sólo mediante la puesta en marcha de iniciativas integrales que incidan en la raíz del problema se podrá avanzar en su erradicación.

Asumimos nuestra responsabilidad en colaboración y coordinación con todas las instituciones, colectivos feministas y de mujeres, expertas y agentes de sociedad. Por todo ello, la Cuadrilla de Ayala se compromete a lo siguiente, teniendo en cuenta que para concretarlo la Cuadrilla tiene como herramientas las Mesas de Seguimiento del Protocolo y Plan contra la violencia Machista



- **Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eskubideak** arreta-prozesu osoaren **erdigunean** jartzea, haien beharrak eta eskaerak entzun eta aintzat hartuta, babeserako, arretarako, erreparaziorako eta berriz ez gertatzeko bermerako eskubidea bermatuko duten politika berriak diseinatzeko.
- Aiarako Kuadrillak ez du murrizketarik egingo 2021eko berdintasun-aurrekontuetan, eta aurreko puntuan identifikatutako ekintzen gauzatzea, jarraipena eta ebaluazioa bermatzeko behar diren partida guztiak handituko ditu. Gainera, berdintasun-unitateak egonkortzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen du.
- Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legeria berraztertze konpromisoa hartzeko, nagusiki COVID-19aren krisiak eragina berezia izan duen esparruetan.
- Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio elkarrizketa-mahai bat sor dezatela hainbat eragile politiko, sindikal, sozial eta hezkuntzakoekin, indarkeria matxisten aurkako Euskal Itun Sozial bat lortzeko
- Behaketa **hobetzea**, indarkeria-egoeretan dauden emakumeen forma eta profil berriak hautemateko eta horien aurrean azkar jarduteko.
- Indarkeria matxistaren edozein formari aurre egiten dioten emakumeentzako
- Situar los **derechos de las mujeres víctimas de violencia machista en el centro** de todo el proceso de atención, escuchando y atendiendo sus necesidades y demandas, para diseñar nuevas políticas que garanticen el derecho a la protección, atención, reparación y garantía de no repetición.
- No realizará recortes en los presupuestos de igualdad de 2021, incrementando todas las partidas necesarias para garantizar la ejecución, seguimiento y evaluación de las acciones identificadas en el punto anterior. Además, se compromete a estabilizar y reforzar las unidades de igualdad.
- Instar a la Diputación Foral y a Emakunde a incrementar las partidas presupuestarias en materia de igualdad de mujeres y hombres, a reforzar de forma permanente las direcciones de igualdad y los juzgados especializados y a comprometerse a revisar la legislación vigente, principalmente en aquellos ámbitos en los que la crisis del COVID19 ha tenido especial incidencia.
- Instar al Parlamento Vasco a crear una mesa de diálogo con diferentes agentes políticos, sindicales, sociales y educativos para la consecución de un Pacto Social Vasco contra las violencias machistas.
- **Mejorar** la vigilancia para poder detectar y actuar con rapidez ante nuevas formas y nuevos perfiles de mujeres en situaciones de violencia
- **Sostener**, mejorar y adaptar los servicios de atención y apoyo para las mujeres que enfrentan violencia



arreta- eta laguntza-zerbitzuak **mantentzea**, hobetzea eta egokitzea, ikuspegi konpontzailearekin, erakunde bakoitzaren eskumenen esparruan.

- Herritarrentzako, eta bereziki emakumeentzako, dauden baliabideen gaineko informazioa eskuratzeko bideak erraztuko ditu.
- Pandemiaren garaian sortu ziren tokiko zaintza-sareak babestuko ditu, bai eta, oro har, herri-kolektiboen lana ere, indarkeria matxisten inguruko prebentzio eta sentibilizazioko ekintza komunitarioak indartzeko eta bultzatzeko, egungo egoerara egokituta
- Aiarako Kuadrillak neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako jabekuntza jarduerak abian jartzeko asmoz, osasun egoerari egokitutako prozesu iraunkorrak bermatuko ditu, hainbat gai jorratu ahal izateko, besteak beste, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab., 10 urtetik gorako neskei eta nerabeei zuzendutako autodefensa feministako tailer iraunkorrak ere jasoz. Horretarako, Beldur Barik programa, hezkidetzak proiektuak, eta Laia Eskola emakumeen Jabekuntza Eskola ditugu.
- Lurraldeko mutil eta gizonei zuzendutako lanketa berezituak abiatzeko konpromisoa hartzen du, afektibitatea, harreman ereduak, maskulinitate ereduak, rol sexistak gainditzeko estrategiak, eta parekidetasuna lantzeko besteren artean; eta horretarako programa zehatzak aktibatzen du konpromisoa ere hartzen du.

machista en todas sus formas con un enfoque reparador, en el ámbito de las competencias de cada institución.

- Facilitar el acceso a la información sobre los recursos existentes para la ciudadanía, especialmente para las mujeres.
- Apoyar las redes de vigilancia local que se crearon durante la pandemia y, en general, la labor de los colectivos populares para potenciar e impulsar acciones comunitarias de prevención y sensibilización en torno a las violencias machistas, adaptándolas a la situación actual.
- Con el objetivo de poner en marcha actividades de empoderamiento dirigidas a niñas, jóvenes y mujeres adultas, garantizará procesos permanentes adaptados al estado de salud, que puedan abordar temas como las relaciones de pareja y las relaciones sexuales afectivas, los amores románticos, las sexualidades libres, etc., incluyendo talleres permanentes de autodefensa feminista dirigidos a niñas y adolescentes mayores de 10 años. Para ello, contamos con los programas Beldur Barik, proyectos coeducativos, y la Escuela de Empoderamiento Laia Eskola.
- La Cuadrilla de Ayala se compromete a poner en marcha tareas diferenciadas dirigidas a chicos jóvenes y a hombres, desde el territorio, para trabajar la afectividad, los modelos de relación, los modelos de masculinidad, las estrategias para superar los roles sexistas y la paridad entre otros, y a activar programas concretos para ello.



- Tokiko bizitzan berdintasun-programak **zaintzea eta egonkortzea**, emakume-kolektibo batzuen egoera ahulak areagotzeko desberdintasunak areagotzearen aurka borrokatzeko.
- **COVID-19aren krisiak** emakumeen pobretzean eta kalteberatasunean duen **eragina aztertzea**, laguntza-jarduera espezifikoak diseinatu ahal izateko
- Kolektibo feminista eta emakume-taldeekin elkarlanean, azterlan bat egingo du COVID-19aren krisiak emakumeengan izan duen eraginari buruz eta indarkeria matxistak hartu ahal izan dituen forma berriei buruz, prebentzio-, arreta- eta erreparazio-ekintza egokiak diseinatzeko gomendioekin.
- **Genero ikuspegia txertatzea** enplegu galerak, diru-sarrerak eta krisiaren beste eragin negatibo batzuk **arintzeko neurrietan**, zeinak eragin handiagoa izan duten emakumeengan, eta oztopo diren **indarkeria matxistako egoeretatik ateratzeko**.
- Kuadrillak borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean
- Erakundeen, udalen, foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko **lankidetzeta eta koordinazioa** eskatzea, baliabideak bermatzeko eta beharrezko ekimen guztiak abian jartzeko, beren eskumenen esparruan.

**Preservar y consolidar** los programas de igualdad en la vida local, para luchar contra el aumento de las desigualdades que agudizar las situaciones de vulnerabilidad de algunos colectivos de mujeres.

- **Analizar el impacto que la crisis del COVID19** está teniendo en el empobrecimiento y la vulnerabilidad de las mujeres para poder diseñar actuaciones específicas de apoyo.
- En colaboración con colectivos feministas y grupos de mujeres, realizará un estudio sobre el impacto de la crisis del COVID19 en las mujeres y las nuevas formas que ha podido adoptar la violencia machista, con recomendaciones para diseñar acciones preventivas, de atención y de reparación adecuadas.
- **Incorporar la perspectiva de género en las medidas dirigidas a paliar las** pérdidas de empleo, ingresos y otros impactos negativos de la crisis, que han afectado más a las mujeres y suponen un obstáculo para que puedan **salir de situaciones de violencia machista**.
- Desde esta institución, reafirmamos nuestro compromiso con la lucha feminista como principal vía e instrumento para construir una sociedad democrática libre de violencia.
- Apelar a la **colaboración y coordinación** entre instituciones, Ayuntamientos, Cuadrillas, Diputaciones Forales y Gobierno Vasco a fin de garantizar los recursos y poner en marcha todas las iniciativas necesarias, en el marco de sus competencias.

Halaber, gure bizilagunei dei egiten diegu mugimendu feministak Emakumeen aurkako

Asimismo, hacemos un llamamiento a nuestros vecinos y vecinas a adherirse a las



Indarkeria Ezabatzekeo eguna dela-eta deitutako mobilizazioei atxikitzekeo.

movilizaciones convocadas por el movimiento feminista con motivo del día por la Eliminación de la Violencia hacia las mujeres.

Azalpena bukatu ostean, presidente andreak taldeei eman die hitza.

**González García andreak** (OMNIA talde politiko batzarkideko kidea) azaldu du eskerrak ematen dizkiola batzar honi egindako lanagatik eta Eudelena oinarriztat hartuta adostutako adierazpen bat ekartzeagatik; OMNIA eta EH BILDU taldeen ekarpenak jaso dira. Bere taldearen ekarpena azpimarratu nahi du; izan ere, haurtzaroz ahaztu ohi gara, eta berdintasuna haurrekin landu behar da, gure seme-alaben heziketa etxean lantzen badugu ere, gizarteak ere haiei eragiten dielako. Espero du egunen batean adierazpen hauek egitea beharrezkoa ez izatea.

**Población Martínez andreak** (EH BILDU talde politiko batzarkideko kidea), azaldu du adierazpen horiek ez direla adierazpen hutsean geratu behar, eta honako hau azpimarratu nahi du:

- Tratu txarrak jasan dituzten emakumeen babeserako eskubidea.
- Sail honetako aurrekontuak ez murriztea.
- Zaintza hobetzea, jakitun izanik zaila dela eskualdeko baserrietan antzematea.
- Gizon eta mutil gazteei prestakuntza eskaintzea, eguneroko tratu txarrak desaktibatzekeo.
- COVID-19ak genero-indarkerian duen eragina kontuan hartzea.
- Dirulaguntzetan genero-ikuspegia kontuan hartzea; izan ere, dirulaguntza gehienak gizonen eskatzen dituzte eta emakumeengana ere iritsi behar dira.

Horren inguruko eztabaida gehiagorik sortu ez denez, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA:** Berrestea azaroaren 15ean egindako erakunde-adierazpena, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA dela eta.

## 6.- AIARAKO KUADRILLA SAREARI ATXIKITZEA ONESTEA

**Presidente andreak** jakinarazi du GIZARTE GAIK, BERDINTASUNA ETA KULTURA Informazio Batzordeak irailaren 30ean egindako bilkuran aho batez onetsi zela Aiarako Kuadrilla BERDINSAREARI atxikitzekeo proposamena.

**Gomara Picaza andreak** (EH BILDU talde politiko batzarkideko kidea) azaldu du EH BILDU taldeak bat egiten duela atxikipen horrekin. Berdintasunerako teknikarien arteko harremanaren garrantzia eta politikariek esparru horretan parte hartzeari ematen zaion bultzada azpimarratu ditu. Gainera, aukera ematen du erakundeetan berdintasunari ikusgarritasun handiagoa erakusteko, eta EUDELEK BERDINSAREAN duen presentzia nabarmendu du.



**Alamillo Udatea jaunak** (EAJ-PNV talde politiko batzarkideko bozeramailea) BERDINSAREARI eskerrak eman dizkio Kuadrillari bertako kide izateko aukera zabaltzeagatik.

Horren inguruko eztabaida gehiagorik sortu ez denez, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA:** Onestea Aiarako Kuadrilla BERDINSAREARI atxikitzea, honako dokumentu honen arabera:

### **BERDINSAREARI ATXIKIPENERAKO DOKUMENTUA**

Emakumeen kontrako Biolentzia gizon eta emakumeen desberdintasunaren muturreko adierazpenetako bat da, eta sexua dela-eta egindako mota guztietako ekintza biolentoak hartzen ditu bere barruan. Ekintza horiek ekar ditzaketen ondorioen artean ez daude soilik emakumeek jasandako kalte fisikoak, ezpada, gainera, kalte sexual edo psikologikoak ere. Hori dela eta, biolentzia hori errotik ateratzeko modurik onena gizon eta emakumeen berdintasunean aurrera egitea da.

Hala ere, tokiko gobernuek ondo dakigu emakumeen kontrako biolentziaren prebentzioa eta erakundeen arretaren hobekuntza uztartu egin behar direla, eta, hori horrela, gai honen arretarekin lotutako erakundeetatik ezin dela modu independente eta partzialean jokatzeko jarraitu. Jarrera irmoa hartu behar da, eta argi geratu behar da arazo honen tamainak erakundeen erantzun integral eta koordinatua eskatzen duela, eta, bertan, udal ekintzak funtsezko zeresana jokatzeko duela, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa den aldetik.

Marko horren barruan, 2001eko urriaren 18an *Etxeko tratu txarren eta sexu eraso biktima diren emakumeentzako arreta*

### **DOCUMENTO DE ADHESIÓN A BERDINSAREA**

La Violencia contra las Mujeres constituye una de las expresiones extremas de la desigualdad de mujeres y hombres, e incluye todo acto violento, cometido por razón del sexo, que pueda traer como consecuencia no sólo daños físicos hacia las mujeres, sino también sexuales o psicológicos. Es por ello que la mejor forma de erradicarla es avanzar en la igualdad de mujeres y hombres.

Si embargo, los gobiernos locales, somos conscientes de la necesidad de combinar la prevención de la violencia contra las mujeres, con la mejora de la atención institucional, para lo cual no es posible seguir actuando de forma independiente y parcial desde las distintas entidades vinculadas con la atención a esta cuestión. Es preciso adoptar una postura firme y evidenciar que la magnitud de este problema requiere de una respuesta institucional integral y coordinada, en la que la actuación municipal juega un papel fundamental en tanto que administración más próxima a la ciudadanía

Dentro de este marco, el 18 de Octubre de 2001 fué suscrito el *Acuerdo interinstitucional para la mejora en la*



*hobetzeko erakunde arteko akordioa sinatu zuten arlo honetan zerikusia duten euskal erakunde guztiek. Bestetik, Akordio horren Jarraipen Batzordeak beharrezkotzat jotzen du udal esparrutik ekintzarako lankidetzeta eta protokolo akordioak sinatzea, Akordio orokorrean xedatutakoa errealitate desberdinetara garatu, zehaztu eta egokitzeko. Aurreikuspen hori Gizon eta Emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 62. artikuluan dago jasota.*

Era berean, Jarraipen Batzorde honek (besteak beste, EUDEL / Euskadiko Udalen Elkarteak osatzen du batzorde hori), 2002ko azaroaren 22an, *Etxean tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako segurtasun-plana* onartu zuen, eta, plan horretan, besteak beste, honako neurri hau proposatzen zen: *Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Euskadiko Udalen Sarea osatzea. Horrek bi motatako jarduerak sustatuko ditu toki mailan: batetik, horrelako indarkeriari aurrea hartzea eta horren biktima direnei laguntza ematea helburu duten programak eta jarduerak ezartzea, eta, bestetik, esperientziak trukatzeko eta esparru horretan burutu beharreko jarduerak bateratuak koordinatzea.*

EUDEL, Euskadiko Udalen Elkartearen aldean, Sarearen buru izateko eta Sarea kudeatzeko erakunderik egokiena delakoan, 2005eko otsailean, EUDEL- Euskadiko Udalen Elkarteak eta EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Institutuak Lankidetzeta Hitzarmen bat sinatu zuten, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea abian jartzeko, eta AIARAKO KUADRILLA dokumentu honen bitartez atxikitzen da Sare horretara.

*atención a mujeres víctimas de maltrato doméstico y agresiones sexuales* por parte de todas las instituciones vascas implicadas en la materia. Por su parte, La Comisión de Seguimiento de dicho Acuerdo manifestó la necesidad de que, desde el ámbito municipal, se elaborasen acuerdos de colaboración y protocolos de actuación que desarrollen, concreten y adecuen a sus respectivas realidades lo dispuesto en el Acuerdo con carácter general, previsión que fue recogida posteriormente en el Art. 62 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Asimismo, esta Comisión de Seguimiento integrada entre otras instituciones por EUDEL

/ Asociación de Municipios Vascos – aprobó el 22 de noviembre de 2002 el *Plan de Seguridad para las mujeres víctimas de maltrato doméstico (2002-2004)* entre cuyas medidas se recogía la de *Constituir una Red de Municipios Vascos contra la Violencia hacia las Mujeres que promueva, en el ámbito local, tanto la implantación de programas y actuaciones dirigidas a combatir este tipo de violencia y a apoyar a sus víctimas, como el intercambio de experiencias, la coordinación y actuaciones conjuntas.*

Entendiendo que EUDEL como Asociación de Municipios Vascos es la entidad más idónea para liderar y gestionar la constitución de la Red, en el mes de febrero del 2005, EUDEL-Asociación de Municipios Vascos y EMAKUNDE- Instituto Vasco de la Mujer suscribieron un Convenio de Colaboración para la puesta en marcha de una Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la Violencia hacia las Mujeres, a la que la CUADRILLA DE AYALA se adhiere por medio del



Hauxe da Sarearen kide garen Euskadiko Udalen APUSTUA:

1. Konpromiso politiko irmoa.
2. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako biolentziaren aurkako ikuspuntu integrala.
3. Autonomiaren sustapenera eta emakumeen jabeakuntzara bideratutako perspektiba.
4. Prebentzioa lehentasun gisa daukan ikuspuntua.
5. Emakumeen aniztasunaren errespetua eta balorazioa.
6. Berdintasuna sustatzera eta emakumeen kontrako biolentziaren biktimei laguntza ematera bideratutako baliabideak modu bateratuan erabiltzeko borondatea.
7. Erreferentzia izateko asmoa, ez soilik Udalentzat, baizik eta emakumeentzat ere bai.
8. Ekintzak etengabe hobetzeko beharrezakoa.

Eta Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sarean modu aktiboan parte hartzeko KONPROMISOA hartzen dugu, hauek izanik Sarearen helburuak:

1. Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea beteko dela bermatzea.
2. Tokiko esparruan programa eta ekintzak bultzatzea, gizon eta emakumeen berdintasuna sustatzeko,

presente documento.

Los municipios Vascos miembros de la Red APOSTAMOS POR:

1. Un compromiso político firme.
2. Un enfoque integral por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres
3. Una perspectiva orientada a la promoción de la autonomía y el empoderamiento de las mujeres
4. Una visión que prioriza la prevención
5. El respeto y la valoración de la diversidad de las mujeres
6. Una voluntad de utilización común de recursos orientados a promover la igualdad y asistir a las víctimas de la violencia que se ejerce contra las mujeres
7. La pretensión de ser un referente no sólo para los ayuntamientos sino también para las propias mujeres
8. La necesidad de la mejora continua de las actuaciones

Y nos COMPROMETEMOS a participar de forma activa en la Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la Violencia hacia las Mujeres, cuyos objetivos son:

1. Contribuir al cumplimiento de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres
2. Impulsar la realización en el ámbito local de programas y actividades dirigidas a promover la igualdad de



- 
- desberdintasunak desagerrarazteko eta emakumeen kontrako biolentziaren aurka borroka egiteko, 4/2005 Legeak ezarritako markoaren eta funtzioen arabera.
3. Arlo horretan, esperientzien trukea ahalbidetzea eta ekintzarako irizpideak koordinatu eta bateratzea, toki mailan ekintzak egin behar direnerako.
  4. Udalaz gaindiko esparruetan hartutako edukiak udal errealitatean garatu, zehaztu eta egokituko dituzten lankidetzak akordioak eta ekintzarako protokoloak sustatzea, beti ere, berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako biolentziaren aurka eginez.
  5. Berdintasunaren alde eta biolentziaren kontra hartzen diren neurri legegileei buruzko hausnarketa egitea eta aurrera eramaten ari diren politikak aztertzea.
  6. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako biolentziaren arloan egiten diren udal praktika onak identifikatu eta hedatzea.
  7. Arlo horretan, oraindik ere egitura eta baliabide egokiak ez dituzten udalerrien lana dinamizatu eta babestea.
3. Facilitar en dicha materia el intercambio de experiencias, la coordinación y la unificación de criterios de actuación a la hora de realizar acciones en el ámbito local
  4. Impulsar la adopción de acuerdos de colaboración y protocolos de actuación que desarrollen, concreten y adecuen a la realidad municipal los contenidos de acuerdos adoptados a nivel supramunicipal en relación a la igualdad y la lucha contra la violencia hacia las mujeres
  5. Analizar las políticas que se están impulsando y reflexionar sobre las medidas legislativas que se adopten en materia de igualdad y lucha contra la violencia
  6. Identificar y difundir buenas prácticas municipales en materia de igualdad y lucha contra la violencia hacia las mujeres
  7. Dinamizar y apoyar el trabajo de aquellos municipios que todavía no cuentan con estructuras y recursos adecuados en esta materia.

## 7.- GARBIGUNEAREN FUNTZIONAMENDU-ARAUDIA ONESTEAN

Presidente andreak Garbigunearen Araudiaren zirriborroa azaldu du, deialdian XIII. ERANSKIN gisa erantsi zen eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2020ko azaroaren 13an egindako bilduran irizpena eman zitzaion.

**González García andreak** (OMNIA talde politiko batzarkideko kidea) azaldu du Batzarrean esan zela beharrezkoa dela araudi hori sakonago aldatzea. Presidenteak lanaldi erdian jarduten duenez, gaia jorratu ahal izatea espero du.



Presidente andreak erantzun du aldaketa egin dela, dokumentua egokitu behar zelako.

Horren inguruko eztabaida gehiagorik sortu ez denez, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**IKUSI DA** 2019ko azaroaren 11ko Gobernu Batzordearen erabakia. Bertan, egokitzen da etxeko eremuaz bestelako eremuetan sortutako hondakinak sartzeko baldintzak berrikustea.

**IKUSI DA** Ingurumen Batzordearen 2019ko abenduaren 2ko irizpena. Bertan, egokitzen da medikamentuen hondakina eta fitosanitarioen ontziak “hondakin onargarrien” zerrendatik kentzea.

**IKUSI DA** saileko teknikariak erregelamendu berrirako egindako proposamena.

Aurreko guztiarekin,

**LEHENENGOA.-** GARBIGUNEAREN FUNTZIONAMENDU-ARAUDI berria onestea.

## **8.- 2020ko EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPENA**

Presidente andreak azaldu du azaroaren 6an egindako Batzarraren ondoren jaso dela 2020ko Euskararen Nazioarteko Egunaren erakunde-adierazpenaren proposamena, eta deialdian **XV. ERANSKIN** gisa erantsi zen (euskaraz eta gazteleraz).

**Iturbe Errasti andreak** (EH BILDU talde politiko batzarkideko kidea) azaldu du ez dagoela ados puntu hau Batzarrean ez aztertzearekin; aurreikusi egin behar zen, eta ez bidali arte itxaron, EUDELeK helarazi zuenean. Hori dela eta, ez da eztabaidarako lekurik egon, eta ez da bilkura telematikorik ere egin; horrek euskarari ematen zaion garrantzia islatzen du. Gainera, euskarak hainbat eremutan izan duen atzerakada nabarmendu nahi du, baita konfinamenduak erabilera murriztu duen administrazioetan ere, baina euskara larrialdietan ere baliozkoa dela nabarmendu nahi du. Ez dakigu zenbat okertu den egoera, eta beren ekarpenak helarazi dizkiote arloko teknikariari.

1.- COVID-19 pandemiaren krisialdiak euskararen normalizazioan eragindako kalteak ebaluatzea eta horiei aurre egiteko kontingentzia-plan bat egitea.

3.- Gure administrazio publikoaren kontratuetan hizkuntza-irizpideak definitzea eta ezartzea.

7.- Euskarazko tokiko hedabideetan iraunkortasun ekonomikoa eta egonkortasuna bermatzeko urte anitzeko hitzarmenak sinatzea.



8.- Euskararen erabilera eta presentzia bermatzea erabiltzen ditugun komunikabide guztietan.

10.- Gazteentzako euskarazko aisialdi-zerbitzuak sustatzea eta zabaltzea.

11.- Familia-eremuetan euskararen erabilera eta transmisioa sustatzea.

15.- Esparru guztietako eragileekin akordioak bilatzea, hau da, enpresaburuen elkarteekin, sindikatuekin, gremialekin, merkataritza-ganbarekin eta beste erakunde batzuekin, euskararen normalizazioa bultzatzeko lana beren gain har dezaten.

16.- Gizarte-eragileekin eta euskal kultura-mugimenduekin lankidetzan jarraitzea.

**González García andreak** (OMNIA talde politiko batzarkideko kidea) azaldu du aurten EUSKARAREN EGUNA arraroa izango dela, eta ahalegin handiagoa egin beharko dugula. Honako hauek nabarmendu nahi izan ditu:

- Etorkizuna euskaraz izango da, baina, horretarako, euskarak kalea irabazi behar du eta helduok horretarako eredu izan behar dugu.
- Erronka garrantzitsuenetako bat da euskararen erabilera hobetzea eta areagotzea; horretarako, politikak ezarri behar dira. Ez da dirurik behar, politikak baizik.

Horren inguruko eztabaida gehiagorik sortu ez denez, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA:** Euskararen eguneko erakunde-adierazpena onestea.

**2020ko EUSKARAREN  
NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPENA  
- AIARAKO KUADRILLA -  
Euskara aurrerabidea delako  
Euskaraz indartu dezagun gure gizartea**

Inoiz inork pentsatuko ez zukeen eran jo gaitu gaitzak. Beste horrenbeste, gaitzaren ondorioek. Mundu osoa, gizarte guztiak, egitura guztiak, pertsona guztiok jarri gaitu geure benetako neurriaren aurrean, buruz buru. Kupidarik gabe utzi du agerian ahaztu nahi genukeen zerbait: zaugarriak gara; zaurituta gaude.

Erantzukizunaren bidetik heldu diogu erronkari Aiaraldean, denon indarrak batuz. Bai baitakigu ez dagoela beste irtenbiderik.

Euskararen hitzun elkarteak ere sufritu du pandemiaren eragina, bereziki erabilera mailan. Zentzu horretan, erakunde publikoen konpromisoa sendoa eta egindako lana handia izanagatik ere, ezin izan diogu nahi bezala erantzun.

Euskaldunok, baina, ezin dugu ahaztu badela funtsezko ekarpen bat, gizarte-ahalegin itzel eta miresgarri horren osagai ezinbestekoa eta geure esku soilik dagoena: euskaraz egin behar diogu aurre mundu mailako krisiari; euskaraz egin behar dugu ilunpetik argira eramango gaituen bidea; euskaraz sendatuko gara, euskaraz sendatuko dugu geure gizartea; euskaraz besarkatuko ditugu mundu osoko gizakiak. Bat garelako. Euskaraz bat mundu osoarekin.



---

Horixe da Aiaraldeko herritarrok –neurri batean edo bestean euskaraz bizi garen herritarrok, alegia– euskara gero eta gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiliz giza garapenari egiten diogun ekarria. Gizarte kudeaketa aurreratuari gaineratzen diogun balio erantsia da hori.

Banaka heltzen diogu, jakina, euskaraz gero eta gehiago bizitzeko konpromisoari. Nahitaezko zutabea baita norberaren eginahal hori edozein aurrerabidetan, oso bereziki gizarte prozesu konplexuetan, eta horixe da euskara biziberritzea helburu duena ere: gizarte-prozesu konplexu bat, ertz eta osagai ugari duena.

Ongi asko dakigu hori mundu osoko euskaldunok.

Gure eskualdean badakigu euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzerakoan inguruan hainbatetan sortzen zaizkigun oztopoak gainditzeko bulkada norberaren erabakia dela.

Badakigu, besteak beste, euskaldunok euskararen hiztun elkarte osatzen dugula, eta Euskaraldian norberaren erabakimenez abiatzen dela euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzerakoan inguruan hainbatetan sortzen zaizkigun oztopoak gainditzeko bulkada.

Baina badakigu, era berean, ezinbestekoa dugula elkarrengana biltzen gaituen bulkada ere. Norabide biko bektorea baita euskara eta euskaldunok lotzen gaituena: euskarak herri egiten gaitu; euskal hiztunon komunitateak egiten du euskara orainaren eta etorkizunaren hizkuntza.

Aiaraldean, bide horretatik heldu zaizkio beti euskarari aurrerapauso behinenak: norberaren eta gizartearen konpromisoak sendo uztartzetik; unean uneko beharrezanez euskaraz erantzuteko erabaki sendotik; eta etorkizunerako bidea euskaraz zolatzeko euskal instituzioek, gizarteak eta gutariko bakoitzak egindakotik.

Euskaraldiak eskaintzen digu aurten berriz ere zailtasunak aukera bilatzeko abagunea, krisia aukera bihurtzeko lanabesa. Ingurumari aldrebesean dator, ez bairik gabe, aurtengoa, eta horrek areagotu egingo du guztion eta bakoitzaren konpromisoaren balioa, administrazio eta erakunde publikoena barne.

Aurtengoan, balio berezi batez apainduko da ahoa bizi, belarria prest eta bihotza kartsu dugun guztion ekimena. Aurtengoan, inoiz baino erabakigarriagoa izango da euskararekiko gertutasunezko keinu praktiko oro, euskal hiztunongandik zein euskararen zabalkundearen erdaretatik lagundu nahi dutenengandik datorrela ere.

Esanahi berezi batez jantziko da aurten, ezinbestez, euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzeko ahalegina: egokitu zaigun ataka larritik ateratzeko erabakiari, euskaraz ateratzearen erabakitasuna erantsiko diogu euskal hiztun nahiz euskararen lagun orok.

Izan ere, eskualde honetan bagenekien euskaraz zetorrela geroa, euskaraz ere mintzo dela etorkizuna, eta aurten beste zerbait ikasi dugu: egoera zailetatik ateratzeko eginahalean lagungarri dugu euskara, bidelagun ezinbestekoa. Krisialditik sendoago



ateratzea helburu dugun honetan, erabil dezagun euskara ere aurrera egiteko lanabes gisa.

Euskaraz biziberritu behar dugulako geure gizartea.

Euskararen ahotsa zor diogulako munduari.

Euskaraz garelako munduko herritar.

Euskara aurrerabidea delako.

## **9.- BI ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSO JARRI DIRELA JAKINARAZTEA**

Presidente andreak jakinarazi du bi administrazioarekiko auzi-errekurtso jarri direla.

### **9.1.- JURISDIKZIO BABESEKO 545/2020 A ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA, HONAKO TALDE POLITIKO BATZARKIDE HAUEK AURKEZTUA: OMNIA, OKONDO AURRERA ETA AIARA BATUZ**

Irailaren 22an sarrera-erregistrora heldu zen Administrazioarekiko 3. zenbakiko Epaitegiak, jurisdikzio-babeseko 545/2020-A auzi-errekurtsuan, Aiarako Kuadrillari egindako epatzea, uztailearen 28ko 52/2020 Presidentetzaren Dekretuaren lehen eta bigarren erabakien aurka. Ebazpen hori eman zen OMNIA, AIARA BATUZ ETA OKONDO AURRERA Talde Politiko Batzarkideetako batzarkideek jarritako aurretiazko berraztertze errekurtsuari erantzuteko.

Antolaketa-eginbidearen bidez, epaitegi horrek Kuadrillari agindu zion hartu-agiria eta administrazio-espeditatea bidaltzeko (egintza horren bidez, administrazioa epatutzat joko da), baita aurkibide orrikatua ere.

EKAIN abokatuen bulegoarekin harremanetan jarri zen auziaren defentsa letradua egiteko, eta, irailaren 25eko 59/2020 Presidentetzaren Dekretuaren bidez, 545/2020 A auzibidean pertsonatzea onetsi eta abokatuen defentsa eta prokuradoreen ordezkaritza izendatu ziren.

Defentsa letraduaren AURREKONTUA: lehen auzialdian, 2.500 euro gehi 525 euroko BEZa, guztira 3.025 euro (prokuradorearen ordainsariak aparte), eta, bigarren auzialdian, 1.500 euro gehi 315 euroko BEZa, guztira 1.815 euro (prokuradorearen ordainsariak aparte).

Interesdun izan daitezkeenak epatu dira (gainerako talde politiko batzarkideetako bozeramaileak) eta dokumentazio guztia bidali da irailaren 28an; izan ere, jarduketa horiek guztiak epaitegiak emandako 5 egun balioduneko epearen barruan gauzatzat eman dira.



## **9.2.- 583/2020 A ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSO ARRUNTA, CESPAS SA ENPRESAK AURKEZTUA**

Urriaren 5ean jakinarazi zitzaion Kuadrillari Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakiko Epaitegian bertan CESPAS SA enpresak administrazioarekiko auzi-errekurtsu arrunta jarri zuela, 583/2020 A, 2020-07-01eko Tokiko Gobernu Batzordearen egintzaren aurka. Horren bidez, ez da onetsi CESPAS 2019ko maiatz-abenduko fakturak ez ordaintzeagatik berandutza interesak eta kobrantza kostuak eskatzeko egindako alegazioa. Aurrekontua eskatu zaio Umerez abokatu jaunari, eta hark egin ditu espedientearen txosten juridikoak. Hona hemen aurrekontua:

Abokatuaren ordainsariengatik, HIRU MILA EURO (3.000,00 €) gehi BEZA proposatzen dira. Era berean, Luís Pablo López-Abadía Rodrigo prokuradorearen ordainsarien proposamena lortu da: lehen auzialdi osoagatik SEIEHUN EURO (600,00 €). Prokuradoreak aparteko faktura egingo du. Zenbateko horietan ez dira sartzen behar bezala justifikatutako hornidurak edo gastuak, ez eta beste profesional batzuek peritu gisa parte hartzeari dagokion ordainsariak ere. Edozein arrazoirengatik, enkarguan zehar, aurrekontua aldatu behar dela ondorioztatzen bada, aldaketaren berri eman beharko zaio bezeroari, eta hark idatziz onetsi beharko du.

**González García andreak** (OMNIA talde politiko batzarkideko kidea) adierazi du taldeei CESPAS enpresarekin duten epaiketaren inguruko informazioa ematea nahi duela.

Eztabaida gehiagorik sortu ez denez, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

## **10.- PRESIDENTAREN LANALDI ERDIKO DEDIKAZIO PARTZIALAREN KONTU EMATEA**

Presidente andreak jakinarazi du gogoratuko dutela, 2020ko aurrekontua onetsi zenean, Presidentetzaren lanaldiaren % 50eko dedikazio partziala sartzen zela, baita 27.000 euroko guztizko kostua ere, zeina, partidetan xehakaturik, urteko lansari gordinetan 20.000 euro diren, gehi Gizarte Segurantzako kostuaren 7.000 euro.

Neurri hori hartzeko, ardura hori esleitu zaion Udalbatzako kideak onetsi behar du, eta onespene horretatik aurrera soilik izango da neurri hori eraginkorra. Onspene hori Udalbatzari jakinaraziko zaio (Kuadrillako Batzarrari) egiten duen hurrengo bilkuran eta ekarriko du onuradunaren lan-gaitasun osoa Udalbatzari haren mesedetan eskaintzea. Horren ondorioz, adostutako lansaria jasoko du, zeinaren zenbatekoa finkoa den eta zeinaren epemuga periodikoa den.



---

Jakinarazi da Presidentetzak ardura hori onetsi zuela 2020ko abuztuaren 1ean. Horren kontu eman da bilkura honetan.

Eztabaida gehiagorik sortu ez denez, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

## **11.- ARABAKO BATZAR NAGUSIETAKO ATE IREKIEN JARDUNALDIAK EGINGO EZ DIRELAREN KONTU EMATEA**

Presidente andreak Kuadrillako Batzarrari jakinarazi dio, aurtan, Arabako Batzar Nagusietako ate irekien jardunaldiak modu birtualean egingo direla aurrez aurre egin beharrean. Hortaz, Kuadrillek ez dute *stand* bat jarri ahal izango beren eskualdeak sustatu eta ezagutzera emateko. Halaber, ez da egingo Kuadrilla guztietako presidentek gonbidatzen ziren Santa Catalinako osoko bilkura tradizionala.

Eztabaida gehiagorik sortu ez denez, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

## **12.- INFORMAZIO BATZORDEETAN EH BILDU TALDEKO KIDEAK ALDATU DIRELAREN KONTU EMATEA**

Presidente andreak adierazi du, EH BILDU taldeko bozeramaile Vivanco Retes jaunak aurkeztutako idatzi baten bidez honako aldaketa hauek ezarri direla Informazio Batzordeetan:

1.- PRESIDENTETZA, ADMINISTRAZIO JARDUN, FUNTZIO PUBLIKO, KONTZEJU ETA FORU ZEIN AUTONOMIA ADMINISTRAZIO ETA BESTELAKO ORGANISMOEN ARTEKO HARREMANETARAKO INFORMAZIO BATZORDEA: **IRUNE ITURBE ERRASTI** batzarkideak Ibarluzea Jaunaren ordezkotua hartuko du.

2.- OGASUN, FINANTZA, AURREKONTU, SUSTAPEN EKONOMIKO, ENPLEGU, BERRIKUNTZA ETA TURISMOKO INFORMATZIO BATZORDEA: **JOSÉ MARÍA GUTIÉRREZ ÁNGULO** jaunak Arcas andrearen titular-lanpostua hartuko du, hura ordezkatzeko.

Eztabaida gehiagorik sortu ez denez, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

## **13.- ONETSITAKO AZKEN DEKRETUEN KONTU EMATEA**



---

Azken bilkuratik onetsitako Presidentetza Dekretuen berri eman da:

47/2012 PRESIDENTETZA DEKRETUA, ekainaren 22koa. 2020ko ekaineko nomina eta aparteko ordainsaria baimentzea, betebeharra aitortzea eta ordainketa agintzea.

48/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, uztailaren 1ekoa. Gastu orokorren behin-behineko eskaera eta 3. hiruilekoko zerbitzuak.

49/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, uztailaren 2koa. 2020ko 3. hiruilekoan Hondakinak Kudeatzeko Zerbitzuagatiko udal-ekarpenen eskaera.

50/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA uztailaren 3koa. 9/2020 kreditu-gaikuntza (hondakinentzako ontziak erosteko).

51/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, uztailaren 27koa. 2020ko uztailleko nomina baimentzea, betebeharra aitortzea eta ordainketa agintzea.

52/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, uztailaren 28koa. Hiru talde politiko batzarkideek aurkeztutako aurretiazko berraztertze errekurtsuari erantzutea.

53/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, uztailaren 29koa. 2020-21ko PECOa eskatzea.

54/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, uztailaren 30ekoa. Gizarte-langilearen kontratazioa luzatzea.

55/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, uztailaren 30ekoa. 10/2020 kreditu gaikuntza (langileei dagozkien kostuak).

56/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, abuztuaren 21ekoa. 2020ko abuztuko nomina baimentzea, betebeharra aitortzea eta ordainketa agintzea.

57/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, irailaren 3koa. AFari turismo arloko jardueren gastuetarako laguntzak eskatzea.

58/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, irailaren 25ekoa. 2020ko iraileko nomina baimentzea, betebeharra aitortzea eta ordainketa agintzea.

59/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, irailaren 25ekoa. Jurisdikzio babeseko 545/2020 A prozeduran pertsonatzea. Prozedura hori Vitoria-Gasteizko 3. zenbakiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian izapidetuko da.

60/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urriaren 2koa. 2019ko Gizarte Ongizateari dagozkion ekarpenak arautzea.

61/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urriaren 2koa. Gastu orokorren behin-behineko eskaera eta 4. hiruilekoko zerbitzuak.

62/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urriaren 2koa. Hondakinak Kudeatzeko Zerbitzurako udal-ekarpenak eskatzea, 2020ko 4. hiruilekoari dagozkionak.

63/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urriaren 26koa. 2020ko urriko nomina baimentzea, betebeharra aitortzea eta ordainketa agintzea.

64/2016 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urriaren 28koa. Materia organikoa biltzeko materiala eskuratzea: poltsa konpostagarriak.

65/2016 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urriaren 28koa. Materia organikoa biltzeko materiala eskuratzea: kitak.

66/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, azaroaren 10a. *Aiaraldea Hemen* aldizkariaren zenbaki berezian argitalpen bat egitea, eskualdean nazioarteko eguna nolakoa izan den azaltzeko.

67/2020 PRESIPRESIDENTETZA DEKRETUA, azaroaren 10ekoa. Mutua p.s.-rekin dugun hitzarmena aldatzea.



---

Behin azalpena amaituta, presidente andreak adierazi du bi mozio aurkeztu direla eta presaz eztabaidatu behar direla. Horietako bat, OMNIA, OKONDO AURRERA eta AIARA BATUZ taldeek aurkeztu dute (sarrera-erregistroko zenbakia: 610). Bestea, aipatutako horren alternatiba gisa aurkeztu dute EAJ-PNV eta SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK taldeek (sarrera-erregistroko zenbakia: 624).

**González García andreak** (OMNIA talde politiko batzarkideko kidea) azaldu du bere taldeak OKONDO AURRERA eta AIARA BATUZ taldeekin batera mozio bat aurkeztu zuela, eta mozio hori batzarkide guztiei bidali zaiela posta elektronikoko bidez.

**Añibarro Maestre jaunak** (EAJ-PNV talde politiko batzarkideko kidea) azaldu du bere taldeak, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK taldearekin batera, gaur goizean, mozio alternatibo bat aurkeztu duela, zeina momentu horretan paperean banatuko den.

**Barrios Medina jaunak** (OMNIA talde politiko batzarkideko bozeramailea) bost minutuko etenaldia eskatu du mozio berria ondo aztertzeko.

Presidente andreak, 14:32an, bost minutuko etenaldia baimendu du.

Presidente andreak bilkurari berrekin dio 14:38an.

**Romero Campos jaunak** (SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK talde politiko batzarkideko bozeramailea) azaldu du mozioak aurkeztu dituzten hiru alderdien arteko akordio bat egin dela eta erabaki dela bi mozioak kendu eta mozio transanzional bat aurkeztea, zeinak bere taldeak eta EAJ-PNVk aurkeztutako mozioaren lehen puntua eta OMNIAk aurkeztutako mozioaren bigarren puntua biltzen dituen.

Eztabaida bukatu ostean, mozio horren inguruan bozkatu da, eta aho batez **ADOSTU DA** mozioa gai-zerrendan sartzea.

## **14.- EAJ-PNV, OMNIA ETA SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA**

**González García andreak** (OMNIA talde politiko batzarkideko kidea) jakinarazi du Ogasun eta Turismo Batzordean azaldu zela diruz lagundutako jarduera batzuk ez zirela abenduaren 31 baino lehen gauzatuko. Batzar horretan bertan eskatu zen luzapen bat idatziz eskatzea. Adierazi zitzairen saileko diputatuarekin hitz egin zela. Pentsatu zuten ez eskaera idatzi hori beharbada aurkeztuko ez zela eta Kuadrillaren hurrengo batzarra 2021eko maiatzean izango denez, mozioa aurkeztu zuten. Planteatutako alternatibak eskertzen dituzte, eta, adierazi dute, Kuadrilla guztien arteko



---

komunikazioa badago Foru Aldundiari edo Gobernuari eskaerak egiteko orduan, emaitzak hobeak izango direla.

**Romero Campos jaunak** (SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK talde politiko batzarkideko bozeramailea) azaldu du aurkeztutako lehen mozioan oinarritzko arazoak zeudela, eta, hortaz, mozio alternatibo bat aurkeztu zutela; beraz, mozio transzionalak bi mozioen muina askoz hobeto jasotzen du.

**Añibarro Maestre jaunak** (EAJ-PNV talde politiko batzarkideko kidea) adierazi du argitu nahi duela aurkeztutako lehen mozioaren zati batzuk ezin direla onartu legalki bideraezinak direlako.

Eztabaida gehiagorik sortu ez denez, bozketa egin da eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA:** Aiarako Kuadrillak, urtea amaitu baino lehen, hasita dauden eta finantzatuta eta/edo kofinantzatuta dauden eta jarduketan inguruko azterketa bat egingo du, baldin eta horien exekuzio-epeak dagokion dirulaguntzaren esleipenean ezarritako epea luzatzea behar badu. Azterlan horren ondorioz, diruz lagunduko duten erakundeei eskatuko zaie beharrezko luzapenak ematea, jarduketaren exekuzioa eta geroko justifikazioa bermatzea legalki posiblea denean.

**BIGARRENA.-** Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari jakinaraztea, baita Arabako Batzar Nagusietan ordezkaritza duten talde batzarkide guztiei eta Arabako gainontzeko Kuadrillei ere.

Presidente andreak galdetu du ea premiaz aurkeztu nahi den puntu edo mozio berririk dagoen.

**Barrios Medina jaunak** (OMNIA talde politiko batzarkideko bozeramailea) azaldu du aurreko batzarrean mozio bat aurkeztu zutela, baina ez dela aintzat hartu, eta iritzi du bere eskubideak urratu direla presidente andreak mozio hori ez duelako batzar honetako gai-zerrendan sartu, hitzeman bezala.

Presidente andreak erantzun du berak ez zuela hitzeman Kuadrillaren hurrengo batzarrean sartuko zuenik.

**Alamillo Udaeta jaunak** (EAJ-PNV talde politiko batzarkideko bozeramailea) azaldu du bere taldeak mozioa onartzearen aurka bozkatuko duela, ez baitu ezagutzen, uztailan aurkeztu zelako. Ahaztu dela iritzi du.

**Barrios Medina jaunak** (OMNIA talde politiko batzarkidearen bozeramailea) jakin nahi du ea nork ahaztu duen, idazkariak ala presidentek.

**Alamillo Udaeta jaunak** (EAJ-PNV talde politiko batzarkideko bozeramailea) erantzun du ahaztutako kontua den arren, ez dela aztertu behar nori ahaztu zaion.



---

**Barrios Medina jaunak** (OMNIA talde politiko batzarkideko bozeramailea) azaldu du gauza asko ahazten ari direla, eta kezkatuta dagoela lanaldi erdia duen norbaiten ekintza ezagatik eta bere talde politikoaren eskubideen urraketagatik. Kuadrillako Batzar honen deialdian, ezohiko bilkura dela jartzen du, baina ohikoa da. Akatsak errepikatzen dira.

**Romero Campos jaunak** (SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK talde politiko batzarkideko bozeramailea) azaldu du, lege-kontuez aparte, akatsak gertatzen direla eta zuzendu behar direla.

**González García andreak** (OMNIA talde politiko batzarkideko kidea) adierazi du errepikatzen diren akats horiek beti egiten diotela kalte oposizioari.

**Añibarro Maestre jaunak** (EAJ-PNV talde politiko batzarkideko kidea) azaldu du akatsak gertatzen direla eta ez zaizkiola gustatzen presidente andrearen inguruan egiten ari diren intsinuazioak. Deialdian akatsik badago, ez da Batzarraren amaieraraino itxaron behar hori aipatzeko.

**González García andreak** (OMNIA talde politiko batzarkideko kidea) galdetu du ea mozio bat premiaz aurkeztu eta onartzen ez denean hurrengo deialdian sartzeko aurkeztu behar den.

**Añibarro Maestre jaunak** (EAJ-PNV talde politiko batzarkideko kidea) erantzun dio Laudion hala dela.

**González García andreak** (OMNIA talde politiko batzarkideko kidea) jakinarazi du aktan ageri dela mozioa hurrengo batzarrean sartuko zela.

**Alamillo Udaeta jaunak** (EAJ-PNV talde politiko batzarkideko bozeramailea) azaldu du, barne-arauegiez aparte, akats bat dagoela, eta, bere iritziz, lehenago jakinarazi eta gai-zerrendan sartu behar zela. Bere taldeak onartzearen aurka bozkatuko du, ezin duelako iritzi.

**González García andreak** (OMNIA talde politiko batzarkideko kidea) adierazi du ohiko batzarra atzeratu zela, deitu zela, bertan behera utzi zela, eta, azkenik, berriro deitu zela, eta, orduan, ez dela gai-zerrendan sartu.

**Ibarluzea Ortueta jaunak** (EH BILDU talde politiko batzarkideko kidea) galdetu du mozioa zein den, bere taldeak ez dakielako.

**González García andreak** (OMNIA talde politiko batzarkideko kidea) erantzun du Arabako Foru Aldundiak egindako Araba sustatzeko iragarkiaren inguruko mozioa dela, zeinetan Aiarako Kuadrilla agertzen ez zen eta konpentsazioa eskatzen zen.

Gaiaren inguruko eztabaida gehiagorik sortu ez denez, horren inguruko bozketa egin da eta OMNIA talde batzarkideak aurkeztutako mozioa gai-zerrendan sartzeko aukera GAITZETSI DA, aurkako 14 botorekin (EAJ-PNVren 12 boto eta SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK taldearen 2 boto) eta aldeko 10



---

botorekin (EH BILDUren 6 boto, OMNIaren 2 boto, OKONDO AURRERaren 1 boto eta AIARA BATUZen 1 boto).

## 15.- ESKAERAK ETA GALDERAK

**Parro Uzquiano andreak** (AIARA BATUZ talde politiko batzarkideko bozeramailea) azaldu du EH BILDUrekin bat datorrela; izan ere, Kuadrilla zer den eta zer izan behar den zehaztu behar da, izututa baitago ikusi duenarekin, Kuadrilla zer den eta nola funtzionatzen duenaren ondorioz. EAJ-PNV taldeak adierazi du espero duela 2021ean jendea gustura egotea Kuadrillan eta horrek esan nahi duela gaur egun pertsona batzuk ez daudela. Hausnarketa egin beharra dago.

**Alamillo Udaeta jaunak** (EAJ-PNV talde politiko batzarkideko bozeramailea) azaldu du, hori opatu duenean 2021erako, ez duela esan nahi orain jendea Kuadrillan gustura ez dagoenik.

**Parro Uzquiano andreak** (AIARA BATUZ talde politiko batzarkideko bozeramailea) erdietsi du bera ez dagoela gustura Kuadrillan.

Presidente andreak azaldu du bera saiatzen dela Kuadrilla parte-hartzailea izan dadin eta prest dagoela gainontzeko batzarkideen eta/edo taldeen ekarpenak entzuteko.

**Alamillo Udaeta jaunak** (EAJ-PNV talde politiko batzarkideko bozeramailea) adierazi du Kuadrilla ez dela soilik presidentearena, baizik eta batzarkide guztiena.

**Parro Uzquiano andreak** (AIARA BATUZ talde politiko batzarkideko bozeramaileag) azaldu du, ahal denean eta horretarako gogoia dagoenean, bilera bat egin beharra dagoela, Kuadrillaren estrategia aztertzeke.

Eta aztertzeke beste gairik ez dagoenez, legez bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **15:11k** direnean. Era berean, presidenteak eta neuk, idazkariak, izenpetu dugu akta hau; eta horrezaz gain, neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

**PRESIDENTEA. Izp.: Encina Castresana Astarloa**

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA. Izp.: Gianfranco Ghiro Alonso**

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA  
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE